



ONARRIAK APPA ZARAUZ

ZER ETA ZERTARAKO

Zarauzko Udalak sustatuta, Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren babesarekin, APPa Zarautz ekimenare helburua da 2030 Agenda, Garapen Iraunkorreko Helburuak (GJH) eta Zarautz 2030 Plan Estrategikoaren bidez hedatzen ari den ibilbide-orria herritarrei eta bereziki herriko gazteei zabaltzea eta hurbiltzea.

Garapen Iraunkorreko Helburuak (17+1) Nazio Batuek bultzatutako garapenaren agenda unibertsalaren bihotza dira. Agenda horrek lan-esparru partekatua eta begirada integrala eskaintzen ditu, nahi dugun etorkizuna eraikitzeko.

Zarauzko Udala 2020tik ari da lanean Zarautz 2030 Plan Estrategikoa garatzeko. Plan hori parte hartze handiz egin zen eta aho batez onartu zen 2022ko urrian, pertsona guztien giza eskubideak bermatzeko: osasuna, hezkuntza, etxebizitza, enplegua, energia, berdintasuna, bakea eta duintasunez bizitzeko ekosistema osasuntsuak. Plan honek udalerraren horizontea eta hura lortzeko elkarrekin definitu diren urratsak marrazten ditu. Beraz, herritar guztien konplizitatea eskatzen duen proposamen partekatua da.

APPa Zarauzko ekimenare helburua da Plan hau Zarauzko gazteekin partekatutako testuinguru bihurtzea, berariaz, bere helburuei buruz sentsibilizatzeko eta gizarte hobe baten eraikuntzan inplikatzeko laguntzeko.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

APPa Zarauz ekimenean parte hartzeko funtsezko baldintza da izen bereko aplikazioa mugikorrean erregistratzea da eta hortik aurrera, ekintza garatzen den hemezortzi egunetan zehar egunero planteatuko diren zazpi galderei erantzutea. Galdera bakoitzak hiru erantzun posible izango ditu, eta erantzun bakarra izango da zuzena. Ez da beharrezkoa izango zuzen erantzutea egunero parte hartzen jarraitzeko. Erroka 2023ko martxoaren 1ean hasi eta 18an amaituko da. Parte hartzeko dinamikan aldi horretako edozein unetan sartu ahal izango da, eta, kasu horretan, sariak eskuratu ahal izateko, erabiltzaileek aurreko egunetan egindako galdera guztiei erantzun beharko diete.



Ekintza hau bereziki Zarauzko gazteei zuzenduta badago ere (14 urtetik aurrera), edozein pertsonari irekita dago; ekintzaren antolaketan parte hartzen dutenek ezin izango dutelarik parte hartu.

SARIAK

Erronka horretan parte hartzearekin hainbat sari eskuratzeko aukera dago, tokiko eragileek emango dituzten askotariko produktu edo zerbitzuak jasotzekoa, tokiko merkataritzaren, ostatuaren eta abarren babesaren eta konpromisoaren erakusgarri gisa. Alde batetik, eguneko sari bat izango da, 24 orduz behin esleituko dena eta parte-hartzaileei jakinarazpen baten bidez ezagutzera emango zaiena, eta, bestetik, sarien katalogo zabal bat ere prestatuko da galdera guztiak bete dituzten artean zozketatzeko. Sari banaketa Zarautzen izango da, martxoaren 24ko arratsaldean.

Aisialdiko eta abenturako esperientziak, jatetxeetako otroduak, koadrilentzako bidaiak eta egonaldiak, tokiko kontsumorako 50 euroko txartelak eta abar eskainiko dira sari gisa. Sarien katalogoa Udalaren webgunean argitaratuko da (<https://www.zarautz.eus/eu/appa-zarautz>) eta sari berriak sartu ahala eguneratuko da zerrenda.

Sariak ezin izango dira eskudiruarekin trukatu.

Sarirako aukera izango dute ekimena garatzen den 18 egunetako galdera guztietan erantzuna (zuzena ala ez) eman duten guztiak. 14 urtetik beherako parte-hartzaile bati Zarautzik kanpora joatea dakarren sari bat egokituko balitzaio, pertsona heldu batek bere gain hartu beharko du erantzukizuna, eta, ondorio guztietarako, saridun gisa agertuko da.

Martxoaren 24ko zozketa-ekitaldian parte hartzeko, beharrezkoa izango da sarrera egiaztatzea, eta 17+1 egunetan ekintza burutu izanaren baldintza betetzen dutenek Zarauzko 2030 Agendaren bulegoan egin ahal izango dute, Salegi kaleko 14. zenbakian, martxoaren 19tik 23ra bitartean.

Zozketaren ordua eta kokapena aurreko egunetan zehaztuko dira, edukiera-mugarik ez dagoela ziurtatzeko, eta ohiko bideen bidez jakinaraziko dira (webgunea, sare sozialak, app-aren jakinarazpenak, komunikabideak).



ZABALKUNDEA ETA ESKUBIDEAK

Oinarri horiek onartuz, parte-hartzaileek baimena ematen diote Zarauzko Udalari sariak jasotzean irudiak hartzeko eta ondoren sare sozialetan eta argitalpen propioetan zabaltzeko, betiere ekintza honen sozializazioarekin lotuta.

DATUEN BABESA

Partekatutako datu pertsonalak www.zarauz.eus webgunearen pribatutasun-politikan ezarritakoari lotuta daude.

LEGERIA ETA JURISDIKZIOA

Oinarri horiek indarrean dagoen legearen arabera arautuko dira. Donostiako Epaitegi eta Auzitegiek izango dute oinarri hauen baliozkotasunari, interpretazioari edo betetzeari buruz sor daitekeen edozein erreklamazio edo eztabaida ebazteko eskumena. Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du erabat onartzen direla. Edozein kontsulta edo argibidetarako: partehartu@zarautz.eus

Saria lortzeko bete beharreko prozedura eta gastu zuzena justifikatu beharko dira.